

SAN JUAN AUZO BATZARRA

Igorren, 2011ko urri lehenengoaren 20an

San Juaneko txokora hurratu diran auzotarrak hamabost izan dira, udalean ordezkaritza daben hiru alderdiak bertan egon diralarik.

Lau urteetarako herritarrenganako harremanak arloak eroango dauan aipamena zein izango dan azalduaz hasi dau alkateak gaurko auzo batzarra. Igo aurrekontuetara lemaren nondik norakoak be aitatu ditu.

Batzarreko gai ordena zehaztu ondoren diru sarrerak nondik datozen azaldu dau modu orokorrean, eskema eran, ehunekoetan adierazoz.

Auzorako detektatu diran gabezien artean honeik aitatu dira; Aparkaleku falta, egoteko eta aisialdirako gunerik eza, solagurengo zeharbideko sarrera, solaguren auzoko farolen konexioa, kontenedoreen kokapen txarra, errege bidearen egoera txarra eta errekaeren egoera eskasa.

Oinezkoen bidea, auzorako sarrera datozen hilabeteotan egingo diran barrikuntza beharrek konpondu beharreko zeozer dala esan dau alkateak. Kontenedoreen kokapenak hainbat diskuzino ekarri dau auzotarren artean. Kotxeen abiadura gehiegizkoa dala be ikusi da udal gobernutik, solagurengo kotxeeri lehentasuna kentzea, aparkaleku falta ikusi da, barianteko zubipea aukera posible lez proposatuaz. Errege bideari be konponbidea emon behar jakola esan dau alkateak.

Barianteko kotxeen eta trafikoaren zaratea jasan ezina dala dinorie auzotarrek, egunez eta gauez deskantsurako kaltegarria dala. Diputazinora eskaria eroango dala azaldu dau alkateak, erremate batzuk zorrean daukazalako diputazinoak udalagaz baina beti erakunde handien menpe geratzen da ebatzia.

San Juan 23 etxebizitzaren azpiko aldea zona pribatutzat hartzeari buruz azalpenak emon dauz alkateak, azken bi hilabeteotan urigintza abokatu baten lanagaz kontrastatu diran datuak emon deutsiez auzotarrerri eta ezin dala ezer egin ebatzi horren kontra.

Zein dan soluzinoa muebles arratian aurreko parkina kenduz gero, terreno partikular moduan auzotar danak ixten itxiz gero? Alkateak plan orokorra onartzea izan leike gakoa baina EAJ-PNVko ordezkariak, modifikazino partzialaren eskaera egin deutso, alkateak baietza emonez plan orokorrean onartuko ez balitz.

San Juan 1 blokeen aurrean dagoan lursaila hartu eta momentuko konponketa lez parkin txiki bat egitea proposatu dau herritar batek, lehenago herriko tabernaren ganean egoan modukoa.

Kontainerraren gaia atara da. Obra egiterakoan kontuan hartu ez ziran faktore batzuk dirala gaur egun problema honen sorrera. Ebatzia kaltetuei jakinarazoko jakiela lehenago esan dau Igorre Danontzat taldeko zinegotziak.

Ongizate eta bardintasunaren arloko zinegotzia dan Soraya Lizundia andreak hartu dau berba. Igotransen beharrezana azaldu dau diagnostiko baten emoitza lez, indarkeriaren kontrako protokolo baten beharra aitatu dau eta ez ekintza solteen bidez bideratzea. Teknikari baten beharrezana dagoala aitatu dau bere berbaldiaren akaberan komisinoan tratauko dan arren gai hau. Protokoloaren nondik norakoak zehaztu ditu Sorayak herritar batek halan galdetu deusolako.

Informazioaren tartea zabaldu dau alkateak, herritar danen intereseko gaiak diralako. Eskoletako aterpearen obren atzerapenaren zergaitia azaldu dau. Urigintzako plan orokorrean proposatzen dan kamioien parkinaren ganeko informazioa. Barianteko gaiak ezinegona sortu dau auzotarren artean, nahiz eta iraganeko gai bat izan oraindik presentzia dekolako gai honek auzoan.